ARABA Euskaraz

GEHIGARRI BEREZIA

JON BENGOETXEA MARTINEZ (Lekeitio, 1972) eta **AIARA MURGA EGIA** (Laudio, 1979) LAUDIO IKASTOLAKO ZUZENDARIA ETA LEHENDAKARIA DIRA, HURRENEZ HURREN. IGANDEKO ARABA EUSKARAZ JAIAREN NONDIK NORAKOAK AZALDU DITUZTE..

Testua eta Argazkia **Txabi Alvarado Bañares**

Igandean izango da Araba Euskaraz jaia Laudion. Ez da ohiko jaia izango, COVID-19a dela eta. Baina, pandemiak pandemia, buruan zenuten jai eredua eraldatzearen ideia, ezta?

Aiara Murga Egia: Bai. Hasierako bileretan ikusten genuen aurtengo jaiak zubi lana egingo duela aurreko urteetako eta etorkizuneko edizioen artean. Jaia eraldatzearen ideiak urte batzuk daramatza pil-pilean. Gipuzkoan hasiak dira dagoeneko.

Jon Bengoetxea Martinez: Nik uste dut eraldaketa maila teorikoan eman dela batez ere. Oso zaila da formatu erraldoia egiteari uztea.

Baina pandemiak zeozer erakutsi badigu hori izan da: urtean zehar ere egin daitezkeela horren masiboak ez diren herri ekintzak. Horrelako egitasmoek ("10.000 kilometro baietz!" bezalakoek) indarra hartuko dute datozen urteetan.

Pandemiak eraldaketa prozesu hori azkartu du, beraz. Zertan islatuko da eraldaketa hori igandeko egitarauan?

A.M.E.: Jaia ez dugu egun bakarrean zentratu, hainbat hilabetetan zehar zabaldu dugu.

J.B.M.: Apur bat alboratu dugu "gunekako formatua", pandemiak behartu gaituelako. Etorkizunean baliteke formatua ez izatea 5-6 gunez osatutako zirkuitu bat. Uste dut zerbait ezberdina izango dela, eta hurbilago egongo dela igande honetako planteamendutik aurreko edizioetakoetatik baino. Pare bat gune planteatuko ditugu, egun-pasan aritzeko emanaldi eta ekintzekin.

Zailtasunak izan ditugu egitarau hori osatzeko, COVID-19a dela eta. 10.000 kilometro baietz! bezalako ekimen bat Araba osoan egitea planteatuko bagenu, adibidez, ezingo litzateke egin. Gazteentzako kontzertu bat ere ez dugu zertan azken egun horretan kokatu, urtean zehar ere egin ahalko litzateke, azken jaira itxaron gabe.

Etorkizunera begira, hau da argi dagoena: Araba Euskaraz euskara-gune bat izango dela, eta familietara bideratutako ekintzak egingo direla batez ere. Hori izango da joera.

Igandeko jaia Aiaraldeko familientzat diseinatua egongo da. Aukera polita izango da goiz edo egun pasa egitera bertaratzeko. Egunaren helburua ez da ekonomikoa izango, asko zaigu dirua ez galtzearekin. Horregatik, familiei aukera bat luzatu nahi diegu, eskaintza ezberdin batez gozatzeko.

Aipatu duzuenez, ekintza guztiak ez dituzue igandeko jaian pilatu. Ikasturtean zehar ere hainbat ekimen burutu dituzue. Zer nolako harrera izan dute?

A.M.E.: Oso pozik gaude. Ekimen indartsuena "10.000 kilometro baietz!" izan zen, eta ez genuen espero izan zuen harrera. Unea ez zen hona, pandemiaren une latz batean egin zen, baina jende askok parte hartu zuen, ez genuen espero.

Orienatzio probak ere arrakasta Itzela izan zuen.

> *"Aiaraldeko familientzat osatua dago igandeko egitaraua"*

Hainbat egun lehenago itxi behar izan genuen izen-ematea, jada beteta zegoelako. Ikusten da jendeak baduela gogoa ekibntzetan parte hartzeko, eta harrera oso ona izan da.

J.B.M.: Nik nabarmendu nahiko nuke berandu hasi garela ekintza hauek antolatzen. Pandemiaren hasiera eta itxialdia izan genituen iaz. Gero etorri zen uda, eta ez genekien Araba Euskaraz antolatuko genuen edo ez. Zalantza horrekin egon ginen urrira arte.

Abenduaren amaieran hasi ginen lanean, denda irekita. Azken bost hilabeteetan ekintza batetik bestera egin dugu salto, gelditu gabe. Ohiko Araba Euskaraz batean gauza asko aurreko udatik egongo lirateke prest.

Askoz biziagoa izan da antolakuntza prozesua, orduan.

J.B.M.: Bai. Baliteke azken eguna horren bizia ez izatea, baina "10.000 kilometro baietz!" antolatzea, adibidez, zoramena izan zen. Aurkezpen ekitaldia ere zaila izan zen: aulkiak

“Pandemiak azkartu egin du Araba Euskaraz jaiaren eraldaketa prozesua”

garbitzea, kontingentzia plana, baimenak... dena zen berria.

10.000 kilometro baietz! ekimena egin ostean aipatu zenuten etorkizunean edizio gehiago egiteko aukera baloratzen zeundetela. Horretarako bokazioa dute planteatu dituzuen ekintzek?

A.M.E.: 10.000 kilometro baietz! egin genuenean esan genuen hartuko genuela bi urtean behin antolatzeko konpromisoa. Erronka aurrera atera zen eta konpromisoa hor dago. Arabako gainontzeko ikastolei ere gustatu zaie ideia, baina ez dakigu Araba Euskarazen baitako ekitaldi bat bezala geratuko den edo ez. Konpromiso bat hartu genuen eta betetzen saiatuko gara.

J.B.M.: Batzuetan iruditzen zait iraganean asmatutako gauzez bizitzeko joera dugula. Asko kostatzen zaigu gauza berriak sortzea. Ikastolak Inauterietako desfilea edota danborrada abiatu zituen bere garaian, baina jendeak behar ditu parte hartzeko aukera berriak, eta ildo horretan kokatzen ditugu mota honetako ekintzak, euskaraz gure herriko jendearentzat antolatuta. Hasi behar dugu sortzaileak izaten.

A.M.E.: Ikastola bizirik dagoela erakutsi behar dugu, herrira eraman. Hori da aurten lortu dugun gauzetako bat: ikastola herriaren bidez bizi dela.

Hezkuntza komunitateari dagokionez, zer nolako egoera dago?

A.M.E.: Inplikazio handia egon da hezkuntza komunitatearen partetik. 10.000 kilometro baietz ekimenari begira, ikastolako langileek asko motibatu zituzten umeak, eta hori nabaritu egin zen gero.

Bideoklipean ere inplikazio handia egon zen.

J.B.M.: Dena den, ez da urterik onena izan. Konturatzen zara egoera honek eragina izan duela pertsona gehienengan. Orain gehiago mugatzen dugu gure burua, edozein gauzaren aurrean. Duela bi hilabete, adibidez, sekulako indarra egin behar zen jendeak ekintzetan izena emateko. Hasi gara beldur horiek gainditzen, baina kostatuko zaigu.

> ***“Ikastola bizirik dagoela erakutsi behar dugu, herrira eraman. Ikastola herriaren bidez bizi da.”***

Behin igandeko jaia bukatuta, zer?

J.B.M: Nik uste dut ikastola (eta hezkuntza mundua, oro har) eraldaketa batean murgiltzen ari dela.

Datozen urteetan gauzak ezberdin egingo ditugu, izan lege batek derrigortzen gaituelako edo gure kabuz egiten dugulako. Goitik behera aldatuko da hezkuntza, eta Laudio Ikastola bete-betean sartuko da eraldaketa prozesu horretan. Ea euskalduntze-prozesuan ere asmatzen dugun.

A.M.E.: Oraingo helburua hori ere bada: proiektu pedagogikoaren eraldaketa bultzatzea.

Euskara
ozen eta garbi
entzuteko

- Soinu paregabea
- Birkargatzen dena
- Konektagarria

CENTRO AUDITIVO OFICIAL WIDEX AUDÍFONOS DE ALTA DEFINICIÓN

LAUDIO
Batzalarrin 3, 94 404 22 86
AMURRIO
Elexondo 1, 945 89 24 22
URDUÑA
Kale Barria 7, 945 38 44 99
wwww.luyandoopticos.com
RPS: 254/14

LUYANDOPTICOS

zabal bideak
ARABA EUSKARAZ 2021 LAUDIO

LAMUZA PARKEA
JANLEKUA

PERGOLA
11:00/12:00/13:00 "Kaiku elikagaien taupadak" antzerkia
16:00 Bertso saioa
17:30 "Ene bada! Aiama eta Ane Guria" musika emanaldia

KASINOA
11:00/12:00/13:00 Ihes gela
16:00 Karaokea

KULTUR ETXEKO LORATEGIA
11:00/13:00 Tailer eta jolasak

LAMUZA FRONTOIA
10:00 Pilota partidak

TONBOLA GUNEA
LAMUZA PLAZA

DENDA GUNEA
ARABA EUSKARAZ DENDA

DERRIGORREZKOA DA AURRETIK IZEN EMATEA: ARABAEUSKARAZ.EUS
SEGURTASUN NEURRIAK BERMATUKO DIRA

G!
Graf!k
EUSKARARI BIDEA ZABALTZEN
ARABA EUSKARAZEKIN BAT
Telleria 2, LAUDIO · 94 672 65 43 · **grafik.eus**

AZOKA GUNEA

INSTITUTUKO JOLASTOKIA

10:30 Tokiko ekoizleen azoka

ALDAI PLAZA

JANLEKUA

11:00/13:00 "3 kluba Go!azen" kontzertua

17:30 "Maider Zabalegi" kontzertu akustikoa

HERRIKO PLAZA

10:00 Irekiera ekitaldia

12:00 "Piztu! EmakumeON energia" ikuskizuna

16:00 Akelarre, Intxarkundia eta Untzueta dantza taldeen emanaldia

17:00 Zunba tailerra

TOÑI ARRAINDEGIA

Ur azpian ala Laudion bizi, euskaraz

Kontsultatu gure eguneko aukera WhatsApp egoeran eta egin zure eskaera!

Laudioko Abastos Azokan 621 21 65 98 / 650 42 13 51
toniarrandegia@gmail.com



HI MUGI fisioterapia

Zumalakarregi 65,
LAUDIO
946 72 75 66
689 96 71 74

www.himugifisioterapia.com

AHOBIZI

Helmuga baino, bidea helburu izan du Araba Euskaraz jaiak

Araba Euskaraz jaia ekainaren 19an ospatuko den arren, egitasmoak urrats ugari eman ditu dagoeneko, eta ugariak izan dira azken hilabeteetan antolatutako ekintzak.

Testua eta Argazkia
Aimar Gutierrez Bidarte

Amurrioko Aresketa Ikastolari lekukoa hartuta, 2020ko abenduan aurkeztu zuen ofizialki Laudio Ikastolak Araba Euskaraz Jaialdiaren edizio berria. "Zabal Bideak" lemapean. Pandemia egoerak sortutako egoerari aurre egiteko "ilusioz eta kemenez" aurkeztu zuten egitasmoa, eta COVID-19ari aurre egiteko ezarritako neurriei moldatuz joan dira unean une.

Jaialdiaren data ekainaren 20an finkatuta egon arren, lehenengo unetik azpimarratu zuten ikastolako kideek ez zutela Araba Euskaraz asteburu bakar batera mugatuko. Kontrara, ikasturte guztian zehar presente egon da, euskarari bide berriak zabalduz etengabe.

Otsailean antolatu zuten jaialdiaren barruko lehenengo ekitaldi kulturala: Bertsoak, dantza eta musika uztartuz Laudioko Granja kiroldegia goraino bete zuen *Bakardadeak garaitu ez zituenak* izeneko ikuskizunak.

Geroztik, ekimen ugari egin dituzte Laudio Ikastola lagundu eta herria girotzeko helburuarekin.

Martxoaren 14an "10.000 kilometro baietz!" erronka jarri zuten mahaigainean. 1.500 pertsonek hartu dute parte euskararen aldeko egitasmoan, Zumalakarregi etorbideko punta batetik bestera 11.280 kilometro eginda guztira.

Ekimen bateratuak

Araba Euskaraz jaiari begirako egitasmoak ez ezik, Euskal Herriko beste ikastolekin elkarlanean hainbat jarduera burutu dituzte azken ikasturtean Laudio Ikastolako ikasle eta irakasleek.

"Ikastolak Herriari" lemapean horma irudiak egin dituzte, eta horietako bat Granja kiroldegiko eskaileretan dago ikusgai. Ikastolen aldeko jai desberdinak zeharkatzen ari den liburu ibiltariak ere geldialdia egingo du Laudion, eta Lizarra Ikastolak antolatutako Nafarroa Oinez jaialdia izango du helmuga.

Komiki lehiaketa ere antolatu dute eta Laudioko ikaslea den Jugatx Larrakoetxearen Amaiurko setioari buruzko lanak irabazi du lehen saria.

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO

75 urte zurekin

PADI PROGRAMA

INPLANTEAK

3D ERRADIOGRAFIAK

Karmen Kalea, 13 behea
Laudio (Araba)
94 672 31 00
www.yandioladental.com

Mediku zentroa RPS: 314/18

etxaurre
higiezinen agentzia
20 urte zurekin

Pisuak
Txaletak
Lokalak
Lursailak
Balioespenak

94 672 85 50
BEZEROARENTZAKO ARRETA
Zumalakarregi 38
01400 Laudio

Bosgarrenaren esperoan, Araba Euskaraz lau ediziok bisitatu dute Laudio

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Laudion ospatzen den 5. Araba Euskaraz jaia izango da ekainaren 19koa, aurretik lau ediziok bisitatu baitute udalerria.

1983koa izan zen aurrena; Arabako Ikastolen aldeko jaiaren 3. edizioa izan zen. Izan ere 1981. urtean ospatu zen lehenengo aldiz Araba Euskaraz, Gasteizen. Gaur egun ere, orduko helburu berberak ditu Ikastolen Elkarteak sustatutako ekimenak: Euskara Araban zehar zabaltzea eta Ikastolei bultzada ematea. Laudioko 1983ko edizio hura berezia izan zen gainera, irailerako aurreikusia zegoen arren, abuztu hartan Laudiok pairatu zituen uholdeen ondorioz urriaren 26ra atzeratu zuten. Hondamendi hark ez zuen jaia geratu, COVID-19ak lortu ez duen bezala.

10 urte geroago iritsi zen edizio berri bat antolatzeko ardura Laudio Ikastolara, "Etorkizuna euskaraz" lemapean.

Mende berriak ekarri zuen Araba Euskaraz jaiaren hirugarren edizioa Laudiora. Oraindik ere aise ezaguna den Beldartxo maskota izan zen edizio berri honen protagonista nagusia. *Txikia zainduz handitu* izan zen edizioko kanta eta Betagarri, Alehop!, SA, La Polla eta Danba taldeetako kideek hartu zuten parte bertan, Ikastolako ikasleekin batera. Hitzak eta musika Benat Mendiguren eta Egoitz Uriartek sortu zituzten. Hain zuzen ere Egoitz Uriarte da edizio honetako abestiaren protagonistetako bat.

2011n ospatu zen azkenekoz Araba Euskaraz jaia Laudion. Egun sargori batek milaka euskaltzale elkartu zituen Laudion, "Araban Bagare!" lemapean, Ikastolari bultzada berri bat emateko.

1983 Araba Euskaraz jaiaren 3. edizioa. Irailean ospatzekoa zen, baina abuztuaren 26an gertatutako uholdeen ondorioz urriaren 23an ospatu zen herriak pairatutako hondamendiari aurre eginez



1993 "Etorkizuna euskaraz" leloak euskarak Araban ordurarte emandako aurrerapausoak balioan jarri nahi zituen, ordurarte egindako lana etorkizun euskaldun baterako oinarri bezala aldarrikatuz

zuentzat
30 urte laudioarren zerbitzura
Eskerrik asko urte guzti hauetan gugan izandako konfiantzagatik
Zumalakarregi 36, LAUDIO 94 672 63 28

INOIZ BAINO HANDIAGO, BETI BEZAIN GERTU
Denda berria:
Zubiaur kalea 2, Laudio
94 672 01 68 | fotoirudi@hotmail.com

karazen

2011 70. hamarkadan, Laudio Ikastola bera bezala, sortutako "Bai euskarari" kanpaina eta *Araban bagare* kanta orainera ekarrita islatu zuen jaiak "Izan zirelako gara, garelako izango dira" leloa

2000 Beldartxo maskotak, lehen promozioetako ikasleek ezagututako beldar-izurrian oinarritutakoa, "Txikia zainduz handitu" leloak milurteko aldaketak luzatutako erronkei erantzuteko bidea islatu zuen tximeleta bilakatuz

egoki
FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA

Amatasun prestaketa • Fisioterapia funtzionala
Osteopatia • Masaje terapeutikoa
Drenaje linfatikoa • Etxez etxeko zerbitzua

Maestro Elorza, 5
LAUDIO
(tren geltokitik hurbil)
T. 946 561 951
M. 605 446 628

ARABA EUSKARAZ

Urtez urte

Aurtengoarekin bost izango dira Laudion ospatu diren Araba Euskaraz jaiak.

Euskara zabaltzea eta Ikastola laguntzea izan dute edizio guztiek ardatz. Urtez urte herritarren memorian iltzaturik geratu diren kantu eta irudiak utzi ditu ospakizunak.

Laudion ez ezik, Amurrioko Aresketa Ikastola ere izan da ospakizunaren lekuko. Lau aldiz ospatu da ikastolen aldeko jai hori Amurrion. 1986. urtean izan zen lehen aldia, 1996an bigarrena, 2005ean hirugarrena eta 2013an, aldiz, azkena.

1983

Laudion egin zen Araba Euskaraz jaiaren hirugarren edizio, 1983. urtean. Handik hiru urtera egin zen Amurrion lehenbiziko aldiz.

araba 83 EUSKARAZ
URRIAK 23 AIARA LAUDIO

1993

"Etorkizuna euskaraz!" lemapean itzilu zen bigarren aldiz ikastolen aldeko jaia Laudiora, 1993. urtean. Danba taldea arduratu zen abestia

etorkizuna euskaraz !
ARABA EUSKARAZ 93
LAUDIO · EKAINAK 20
Caja Vital · Vital Kutxa

2000

"Txikia zainduz, handitu" lema hartuta eta beldar bat ikur moduan erabilita egin zen jaia hirugarren aldiz Laudion, milurteko berriaren

ARABA EUSKARAZ LAUDIO

2011

"Bagare!" lemapean ospatu zuten jaiaren XXXI. edizioa Laudion. Sokaide taldea arduratu zen abestia egiteaz, baina beste hainbat

BAGARE!!
ARABA EUSKARAZ 2011
LAUDIO ikastola

2021

"Zabal bideak" lemapean ospatuko dute igandean Araba Euskaraz jaia Laudion, egun osoko egitarauarekin. Laudio Ikastolako hainbat

zabal bideak
ARABA EUSKARAZ 2021 LAUDIO

Auzolanean sortutako kanta

auzolanean eraikitako jai baterako

Testua eta Argazkia
Txabi Alvarado Bañares

"Eskutik eskura guztion eskura, ahorik aho, zabal dezagun euskara mundura!". Horrela hasten da aurtengo Araba Euskaraz jaiaren abestia, eta esaldi horrek balio du baita ere abestiaren sorkuntza prozesua deskribatzeko, eskurik esku eginiko lana izan baita, hainbat sortzaileren parte hartzearekin garatutakoa.

Izar Mendiguren Cosgaya bertsolariak abiatu zuen prozesua, abestiaren letra osatuz. Egoitz Uriarteren txanda iritsi zen gero. Bera arduratu da kanta konposatzeaz, baina hainbat musikari izan ditu bidelagun: Endika Guerrero (saxo tenorea), Iskander Vesga (saxo altua), Garazi Orueta (klarinetea), Laura Pelayo (zeharkako flauta), Felix Miguel Adrian (tronpeta), Flor Inza (perkusioa), Daniel Lamperez (teklatuak) eta Enric Gomez (baxua). Uriarte bera arduratu da abesteaz, Aiala Mendieta, Xabi Basterra, Ana Brau eta Laudio Ikastolako zenbait ikaslerekin batera.

Munduko hainbat txokotako musiken nahasketa bat egitea zen Uriarteren helburua, baina pandemiak nabarmen mugatu zuen grabaketa prozesua.

Grabaketa gehienak etxean bertan egin behar izan zituen musikariak, eta abestiaren zati batzuk euren kabuz grabatu behar izan zituzten musikariek. Hala ere, Uriarte pozik dago lortutako emaitzarekin.

Koreografia

Oso abesti dantzagarria osatu dute musikariek, lelo itsaskorrarekin eta udarako gonbitea luzatzen duten haize doinuekin.Gauzak hala, Ainize Solauni erraza egin zitzaion kantaren koreografia osatzea. "Ikastolako kideei esan nien ez nuela denbora askorik, eta kanta entzun ostean baloratuko nuela ea koreografia egiteko gai nintzen edo ez", azaldu du dantzari amurrioarrak, "baina kanta entzun nuenean berehala etorri zitzaidan dantzarako ideia burura, eta azkar batean garatu nuen".

Bideoklipa

Bideokliparekin batera aurkeztu zuten abestia. Aiaraldea Ekintzen Faktoria arduratu zen ikus-entzunezkoa ekoizteaz.

Hainbat grabaketa egun behar izan zituzten irudi guztiak grabatzeko, ikastolako hezkuntza komunitateko ahalik eta jende gehien agertzea baitzuten helburu.

ARABA EUSKARAZ KANTA

Zabal Bideak!

Eskutik eskura guztion eskura,
ahorik aho, zabal dezagun euskara mundura!
eskutik eskura guztion eskura,
pausorik pauso zabal dezagun Laudio mundura!
hizkuntza, kultura bideak zabal, zabal bideak
guztion mundu da!

Gure arbaso denek zuten jaso
auzolanen pauso ta irrika,
ikastolari gabiltza kantari
mundua jos dezagun irrika!

Ai, zenbat jai ta garai!
eskulan, ikasbidai...
Jon, Janay...noiznahi
Gurekin etorri nahi?

Eskutik eskura guztion eskura,
ahorik aho, zabal dezagun euskara mundura!
eskutik eskura guztion eskura,
pausorik pauso zabal dezagun Laudio mundura!
hizkuntza, kultura bideak zabal, zabal bideak
guztion mundu da!

Jolas librea da gure bidea
ta norabidea etapaka
Tipi ta tapa, saltoka, algaraka...
Araban bagare tantaz tanta!

Ai, zenbat jai ta garai!
eskulan, ikasbidai...
Jon, Janay...noiznahi
Gurekin etorri nahi?

Eskutik eskura guztion eskura,
ahorik aho, zabal dezagun euskara mundura!
eskutik eskura guztion eskura,
pausorik pauso zabal dezagun Laudio mundura!
hizkuntza, kultura bideak zabal, zabal bideak
guztion mundu da!

AIARABIKE
LAUDIO
946 56 54 49
www.aiarabike.com
urte elkarrekin 10

ENKARKI
ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO
MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA
Eraikuntza, industria, ekitaldiak, lorezaintza eta garbiketa
Arza II industrialdea, LAUDIO 946 43 00 42
enkarki@enkarki.net www.enkarki.net

Aresketa Ikastolak pandemiaren neurrira egokitu zuen Araba Euskaraz

Pandemia egoerak prestaketa lanak bertan behera utzi zituen, eta 2020ko urriaren 3ra atzeratu zuten Amurrioko hitzordua. Hori ere ezin izan zen ospatu, baina ekintza kultural ugari antolatu zituzten 'Drabagu' dinamikaren barruan.

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

COVID-19ak sortutako pandemia egoerak zeharo baldintzatu zuen ere Amurrioko Aresketa Ikastolak antolatutako Araba Euskaz jaia.

2019an Gasteizko Armentia Ikastolaren eskutik jaso zuen Amurrioko ikastetxeak ekimena antolatzeko lekukoa, eta burubelarri ekin zioten lanari.

Ekainaren 14a zuten jomugan, egun horretan euskaltzalez beteko baitziren Amurrioko kale eta inguruak.

Leloak ere hartuak zituen herriko txoko desberdinak, izan ere "Darabagu" lemapean antolatu behar zuten 2020ko edizioa. 2019ko uztailaren 18an egindako ekitaldi batean aurkeztu zuten leloa, ekimen kulturalen segida bati hasiera eman behar zion lehenengo hitzorduan.

Pandemiak, ordea, prestaketa lan eta gainerako ekimen guztiak geldiarazi zituen.

Ekainean, Amurrioko Guk parkean egindako ekitaldian Araba Euskaraz jaiaren data berria iragarri zuten: urriak 3. Horrekin batera jaialdiaren kanta, dantza eta bideoklipa ere aurkeztu zituzten bertan. Abestian Xabi Solanok, Bad Soundek edota Aiala Mendietak parte hartu zuten, besteak beste.

'Darabagu' lemapean 2020ko ekainaren 14ean ospatu behar zen Araba Euskaraz jaia Amurrion

COVID-19 birusak eragindako egoerara moldatuta ekitaldi txiki eta xumeagoak egitea zuten helburu, eta segurtasun eta osasun baldintzak bermatzeko planteamendua egokitu zuten horretarako.

Abuztuan, ordea, pandemiaren eboluzio ezkorraren aurrean 2020ko azken hilabeteetarako iragarrita zeuden Ikastolen aldeko jai guztiak bertan behera uzteko erabakia hartu zuen Ikastolen Elkarteak, eta ondorioz, baita Amurrioko Araba Euskaraza ere.

Ekitaldiek etenik ez

Jaialdia antolatzeko ezintasunak, ordea, ez zuen Aresketa Ikastolaren grina zapuztu eta hainbat jarduera kultural antolatu zituzten.

Durangoko Azokoako Ahotsenea egitasmoak Amurriora bidaiatu zuen, kultur egitarau horren barruan, tokiko sortzaileei ahotsa emateko helburuarekin. Urriaren 18an egin zuten Darabagu dinamikaren itxiera ekitaldia Amurrio Antzokian. Sabin Guaresti, Aiala Dot & k.Late, Bad Sound, Oihana Bartra, Ane Labaka eta Izar Mendiguren aritu ziren oholtza gainean.

Laudio Ikastolako lehenengo promozioa 1979an. **Laudio Ikastola**

50. urtez euskarari bide berriak zabalduz

Diktadura frankista indarrean eta traba legal, politiko eta ekonomikoak tarteko, 1971. urteko ikasturtean abiatu zuen bere ibilbidea Laudio Ikastolak, garai hartan sortutako beste hainbetse Ikastolak bezala. 20 ikasle izan ziren lehenengo urrats horren protagonista, eta ikasleen familiek hezkuntza kooperatiba sortu zuten. Laudioko Galmaka auzoan hasita, hainbat kokaleku desberdin izan zituen ikastetxeak, 1979an gaur egungo egoitzako ateak zabaldu zituen arte. Egoitza berriak ezinbesteko aurrerapausoa ekarri zuen urtez urte handituz zihoan ikasle taldearen beharrei heltzeko.Urtebete beranduago, 1980an Laudio Ikastolako lehen promozioa irten zen zentrotik, eta Laudio Institutuan sortu berria zen lehen talde euskaldunean jarraitu zuten ikasketekin aurrera. Lehen promozioaren irteerarekin bat eginez urte horretan bertan lortu zuen Ikastolak legezko aitortza osoa.

Herriari lotua

Ikastolaren ibilbideak lotura estua izan du Laudioko herri ekimenekin. Esaterako, herrian antolatutako lehen Olentzero jaia Ikastolak berak bultzatutako ekimena izan zen 1972an. garai hartan ere ikastetxearen sostengurako taberna zabaldu zuten Laudioko Herriko Plazan, euskara eta euskal kultura babestea ardatz hartuta.

Etengabeko hazkundea

1980 eta 1990eko hamarkadan etengabeko hazkundea bizi izan zuen Ikastolak. 1983 an Araba Euskaraz jaia ospatu zen aurrenekoz Laudion. 1990ean BBBko lehen promozioa abiatu zen, ikasleei Ikastolan bertan ikasketekin jarraitzeko aukera eskainiz. Handik urtebetera, 1991n Laudio Txiki egitasmoa sortu eta 2 urteko gela abiatu zuten Ugarte auzoko egoitzan. Eleanitz proiektuari ere bidea zabaldu zioten 1994an. 4 urteko ikasleekin abiatu zuten lerro berria.

Behin betiko egoitza

1999. urtean beste mugarri bat jarri zuen Laudio Ikastolak bere ibilbide oparoan; 1979an abian jarritako egoitzaren handitzea gauzatu zen urte horretan. Horrek maila eta lerro guztiak eremu berdinean batzeko aukera eskaini zuen. Izan ere Lehen Hezkuntzarako espazio berria egokitu zuten, eta Laudio Txiki zein Bigarren Hezkuntza Ugarteko behin behineko egoitzatik atera eta Motxotekale bideko eraikinean elkartu zituzten. Gainera Bigarren Hezkuntzaren Ondorengo ikasketei segida emateko asmoari heldu eta Batxilergo eskaintza sendoa osatu zuten. "Txikia zainduz handitu" lelopean eman zioten XIX.mendeari ongi etorria Laudio Ikastolan, eta DBH eta Batxilergo mailak sendotzeaz gain, 2003an Haur Hezkuntzako ziklo osoa estreinatu zuten 0, 1 eta 2 urteko haurren eskolatzea bermatuz.

50. urte

Datorren 2021/2022 ikasturtean helduko dio Laudio Ikastolak 50. urteurreneko ospakizunei. Prestaketa lanetan daude dagoeneko. Egoerak eskaintzen dituen aukeren arabera antolatuko dute egitaraua. Asmoa argia da: Ikastolako hezkuntza komunitatean bidelagun izan dituzten guztiekin ospatu nahi dute 50. urteurrena.

a-tik ESTUDIO

ENPRESENTZAKO ETA PARTIKULARRENTZAKO ZERBITZU GRAFIKOAK

DISEINUA: marka-irudia, errotulazioa, packaginga, kirol-uniformeak...
ARGITALPENAK: liburuak, aldizkariak, argazki-albumak...
WEB: webguneak, online dendak, liburu elektronikoak, edukien eguneratzeak...
PUBLIZITATEA: MUPI zirkuitua Laudioko Zumalakarregi etorbidean.

aldizkariak eta liburuak

publizitatea Laudion

kirol ekipamendua

web

644 665 639
info@a-tik.com